

# udako aisialdi eskaintza 2023

zirimola

IKASTOLEN AISIALDI TALDEA

Uda honetarako ere **Zirimola Ikastolen Aisialdi Taldeak** antolatu ditu udako egonaldiak.

Aurtengo udari begira haur eta gazteentzako **programazioa landu da**, aisialdi hezitzailea eskaintzeko asmoz. Horretarako, aurreko ikasturtean ikasitakotik, urtero bezala, programei berrikuntza pedagogiko esanguratsuak txertatu zaizkie: interesgune berriak eta hezitzaileen formakuntza espezifiko eguneratuak, besteak beste .

Euskal Herri osoan zabaltzen dira  ZIRIMOLAk antolatzen dituen udalekuak, eta, haurrak erdigunean direla, honako  balio hezitzaile hauek bermatzen dituzte: **parte-hartzaileak izatea, naturaz gozatzeko eta ikasteko jarduera-multzoez osatuak, inklusiboak, herritarrak, eta,  ororen gainetik, euskaldunak.** Modu horretan, gure udalekuak euskaratik eta euskaraz Euskal Herriko haur eta gazteen topagune gogoangarri izatea nahi dugu. Horretarako, egonaldi-eskaintza zabala dugu, norberaren berezitasunetatik abiatuta, haur eta gaztetxoek  aukera izan dezaten euren gustuen araberako hautaketa egiteko, eta, jolasetik (ludikotasunetik) abiatuta, une gozagarriak bizitzeko.

**Haur eta gazteek merezi dutelako, udan ikusiko dugu elkar!**

## IKASTOLAN BERTAN

| | **1.txanda** Ekainak 21-30 | **2.txanda** Uztailak 3-7 | **3.txanda** Uztailak 10-14 | **4.txanda** Uztailak 17-21 |
|---|---|---|---|---|
| **eman** hegoak | 2013-2019 (HH3-LH4) | 2013-2019 (HH3-LH4) | 2013-2019 (HH3-LH4) | 2013-2019 (HH3-LH4) |
| **enjoy** english | 2013-2017 (HH5-LH4) | 2013-2017 (HH5-LH4) | 2013-2017 (HH5-LH4) | 2013-2017 (HH5-LH4) |

## UDALEKU ITXIAK

| **EUSKARAZ** | **1.txanda** Ekainak 25-Uztailak 1 | **2.txanda** Uztailak 2-8 | **3.txanda** Uztailak 9-15 | **4.txanda** Uztailak 16-22 |
|---|---|---|---|---|
| **euskara** mugara | 2012-2014 (LH3-5) | 2012-2014 (LH3-5) | 2012-2014 (LH3-5) | 2012-2014 (LH3-5) |
| **natura** arnas | 2011-2013 (LH4-6) | 2011-2013 (LH4-6) | | |
| **gazte** topaketak | | | 2008-2009 (DBH2-3) Uztailak 8-16 | |
| **uretan** blai (Lekeitio) | 2010-2011 (LH6-DBH1) | 2009-2010 (DBH1-2) | 2011-2012 (LH5-6) | |
| **uretan** blai (Zurriola) | | 2011-2013 (LH4-6) | 2009-2010 (DBH1-2) | 2011-2013 (LH4-6) |

| **INGELESEZ** | **1.txanda** Ekainak 25-Uztailak 1 | **2.txanda** Uztailak 2-8 | 3.txanda Uztailak 9-15 | **4.txanda** Uztailak 16-22 |
|---|---|---|---|---|
| **multiadventure** camps (Bermeo) | 2011-2012 (LH5-6) | 2011-2012 (LH5-6) | 2009-2010 (DBH1-2) | |
| **multiadventure** camps (Zarautz) | | 2009-2010 (DBH1-2) | 2011-2012 (LH5-6) | 2009-2010 (DBH1-2) |

## ATZERRIKO EGONALDIAK

| | Ekainak 27-Uztailak 18 |
|---|---|
| **atzerriko** egonaldiak (Irlanda) | 12-16 urte |

# **eman** hegoak



**Ekainean eta uztailean** zehar **ikastolan bertan** egiten diren **goizeko udalekuak** dira eta **HH eta LHko ikasleei zuzenduta** daude. Programazioa adin-tarte bakoitzari egokitzen zaio, eta, aisialdi euskalduna, inklusiboa eta hezitzailea eskaintzeko helburuz, aste bakoitzeko interesgune jakin bat duen jarduera-multzoa garatzen da.

**NOIZ**
Ekainaren 21etik uztailaren 21era.
4 txandatan, goizez .

**NORENTZAT**
2013-2019 artean jaiotakoentzat (3-10).

**NON**
Norbere ikastolan egingo da (ikastolaren baitan dago proiektuan parte hartzea).

**PREZIOA ETA IZEN EMATEA**
Baldintza orokorren eta ordainketen berri jakiteko galdetu zure ikastolan.

# **enjoy** english



**Ekainean eta uztailean,** haurrak taldean eta modu ludikoan **ingelesez aritzeko, ikastolan bertan egiten diren goizeko udalekuak** dira. Ikastolen Elkarteak udaleku honetarako beren-beregi sortutako ikasmateriala erabiliko da. Udalekuak aurrera eramateko ardura izango duten **hezitzaileak ingeles hiztunak dira. Ikastolek nahi izanez gero, gainera, hezitzaile horiek jatorriz ingeles hiztunak izan daitezke.**

**NOIZ**
Ekainaren 21etik uztailaren 21era.
4 txandatan, goizez.

**NORENTZAT**
2013-2017 artean jaiotakoentzat (5-10)

**NON**
Norbere ikastolan egingo da (ikastolaren baitan dago proiektuan parte hartzea).

**PREZIOA ETA IZEN EMATEA**
Baldintza orokorren eta ordainketen berri jakiteko galdetu zure ikastolan.

# **euskara** mugara



Euskara mugaraino eramango dugu, aisialdi hezitzaileaz gozatuz, Arabar Errioxako ertzak ezagutuz eta bertako baliabide kultural eta naturalak dastatuz. Astebetez, **Lapuebla de Labarkako Assa ikastolan** ekintza ludikoz beteriko elkarbizitza-gunea sortuko dugu. **Mahastietan, upategietan eta Ebron ere euskaraz bizi gara!**

**NOIZ**
1.txanda: ekainaren 25etik uztailaren 1era.
2.txanda: uztailaren 2tik 8ra.
3.txanda: uztailaren 9tik 15era.
4.txanda: uztailaren 16tik 22ra.

**NORENTZAT**
2012-2014 artean jaiotakoentzat (8-11).

**NON**
Assa Ikastolan (Lapuebla de Labarka).

**PREZIOA**
Ikastoletako ikasleek: 246€
Gainerakoek: 281€

# **natura** arnas

## **Joko, jolas eta plast!**



**NOIZ**
1.txanda: ekainaren 25etik uztailaren 1era.
2.txanda: uztailaren 2tik 8ra.

**NORENTZAT**
2011-2013 artean jaiotakoentzat (9-12).

**NON**
Alloko La Tahona etxean.

**PREZIOA**
Ikastoletako ikasleek: 281€
Gainerakoek: 306€

Lizarrerria **euskal jolas eta jokoen bitartez** ezagutzeko aukera paregabea. Allok eta haren inguruak ematen dizkigun baliabide naturalak uztartuz, uda-giroan astebeteko egonaldiak egingo ditugu. **Mendi-irteerak, euskal pilota, herri-kirolak, igerilekua, tailerrak, gaubelak...** aspertzeko denborarik ez!

# **gazte** topaketak



Euskal Herriko lurralde ezberdinetako **gazteen topagunea** izango da La Tahona aterpetxea. **Gazteen interesak, motibazioak eta beharrizanak aintzat hartuz,** askotariko ekintzez eta dinamikez osatutako aste ludikoa izango da bertan egingo duguna. Gazteek, jolasak ematen duen gozamenerako aukera baliatuz, berdinen arteko harremanetan sakontzeko aukera paregabea izango dute.

**NOIZ**
Uztailaren 8tik 16ra.

**NORENTZAT**
2008-2009 artean jaiotakoentzat (13-15).

**NON**
Alloko La Tahona etxean.

**PREZIOA**
Ikastoletako ikasleek: 300€
Gainerakoek: 320€

# **uretan** blai

## (Zurriola eta Lekeitio)



Aurten **Zurriolan eta Lekeition** biziko dute ikasleek urak eta itsasoak kostaldean, pertsonengan, komunikazioan eta kulturan izan duten eragina. Modu horretan, naturaz gozatzeko aukera izango dute, itsas mundua ezagutuz eta sentituz, itsasoan eta Donostiako eta Lekeitioko inguru ederretan egingo diren jolasen, jokoen eta jarduera ludikoen bidez.

**NOIZ**

1.txanda: ekainaren 25etik uztailaren 1era (Lekeitio).
2.txanda: uztailaren 2tik 8ra (Lekeitio eta Zurriola).
3.txanda: uztailaren 9tik 15era (Lekeitio eta Zurriola).
4.txanda: uztailaren 16tik 22ra (Zurriola).

**NORENTZAT**

2009-2013 artean jaiotakoentzat (9-14)

**NON**

Donostiako Zurriola Ikastolan eta Lekeitioko Azkue Ikastolan.

**PREZIOA**

Ikastoletako ikasleek: 327€
Gainerakoek: 347€

# **multiadventure** camps
## (Bermeo eta Zarautz)



Euskal kostaldean **ingelesez egingo diren multiabentura udaleku itxiak** dira hauek. **Zarautzen eta Bermeon** gazteek ingelesa lantzeko aukera izango dute ekintza-programa zabal baten bidez: kirol- eta ur-ekintzak, txangoak eta abar. Hezitzaileak **Euskal Herriko ingeles hiztunak eta jatorriz ingeles hiztunak izango dira.** Enjoy the adventure with us!

**NOIZ**
1.txanda: ekainaren 25etik uztailaren 1era (Bermeo).
2.txanda: uztailaren 2tik 8ra (Bermeo eta Zarautz).
3.txanda: uztailaren 9tik 15era (Bermeo eta Zarautz).
4.txanda: uztailaren 16tik 22ra (Zarautz).

**NORENTZAT**
2009-2012 artean jaiotakoentzat (10-14).

**NON**
Zarauzko Salbatore Mitxelena Ikastolan eta Bermeoko Eleizalde ikastolan.

**PREZIOA**
Ikastoletako ikasleek: 320€
Gainerakoek: 350€

# **atzerriko** egonaldiak
## (Irlanda)




**NOIZ**
Ekainak 27 - Uztailak 18

**NORENTZAT**
12-16 urte

**PREZIOA**
Ikastoletako ikasleek: 2700€
Gainerakoek: 2900€

**IZENEMATEA**
Martxoaren 6tik aurrera, plazak agortu arte.

**PREZIOAN BARNE**
- Bidaia hegazkinez.
- Irlandan garraioa.
- Familian ostatua. Mantenu osoa.
- Ingeles ikastaroa.
- Txangoak.
- Ekintza sozialak eta kulturalak.
- Hezitzaileen laguntza.
- Multiasistentzia asegurua.
- Bilera informatiboa eta kamiseta.

**Irlandan** egiten den egonaldia da hau. Bertako kulturan murgilduz, gazteek ingelesa ikasteaz gain esperientzia paregabea biziko dute; hazteko, ikasteko, eta esperimentatzeko egonaldi zinez gogoangarria.

**INFORMAZIOA**
WEB ORRIAN: www.zirimola.eus
ZURE IKASTOLAKO IDAZKARITZAN

**NOLA MATRIKULATU**
ON-LINE: www.zirimola.eus
NORBERE IKASTOLAN
(Eman Hegoak eta Enjoy English)

**ARRETA ORDUAK**
Astelehena-osteguna
9:00-14:00/15:00-17:00
Ostirala
9:00-15:00
Tlf.: (0034) 943 369637/ 943 445108
Emaila: zirimola@ehi.ikastola.eus

**IZEN EMATEA**
Martxoaren 6tik maiatzaren 16ra

## www.zirimola.eus

ikastolenelkartea



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
ORAIN GIPUZKOA
BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA